

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

2026ko martxoaren 31n buruturiko ohiko udal osoko bilkuran, aho batez, AJAko 206 artikulua salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

“Zarkumendegi” H.E.A. 21eko hiritartze lanen 2.fasearen aldaketa proiektua

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Endara Ingenieros Asociados SLk idatzitako 2026ko otsailaren 27ko “Astigarragako Zarkumendegi industrialdea urbanizatzeko proiektuaren 2. fasearen aldaketa” ri, udal-arkitektoak 2026ko martxoaren 12ko txostenean ezarritako baldintzekin gehi Lurraldea batzordean onartutako baldintza osagarri hauek:

. Aparkalekuaren erdian ipiniko diren farolak desmontagrraik izan beharko dute, aparlekuak erdian inongo oztoporik gabe geratzea duela.

. Udalak aparkalekuaren erabiliretarako argindar hornidura finko bat behar du etxolaren atzealdean, beraz kaxa bat jarri beharko da babesean eta baita hidrante bat egungo bidegorriaren ondoan.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea 20 egun balioduneko epean, eta erabakia GAOn eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea. Era berean, udalaren iragarki-taulan eta udalaren webgunean (www.astigarraga.eus) argitaratuko dira dokumentuak.

Hirugarrena.- Construcciones Moyua SLri eskatzea, behin betiko onarpena emateko, aldatutako proiektua aurkez dezala. Bertan, udal-arkitektoaren txostenean ezarritako baldintzak eta, hala badagokio, obra eta zerbitzu sailak ezarritakoak jasoko dira.

Laugarrena.- Erabakia Construcciones Moyua SLri eta Astigarraga Lantzen SARI jakinaraztea.

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2026ko martxoaren 31n


Xabier Urdangarin Lasa
Alkatea




Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria